

Frank Einsteinen panpina

Frank Einstein bata zuri batekin janzen zen beti, eta harrizko gaztelu batean bizi zen bere katuarekin batera. Konkorduna zen, eta ile zuria zuen. Gazteluan bazuen postontzi bat eta postontzian hauxe jartzen zuen: «Frank Einstein: Asmatzailea».

Asmakizun franko egin zituen, baina bat oso berezia: inork nahi ez zituen panpinen pusketekin panpina berri bat sortu zuen. Hartu zuen inork nahi ez zuelako zaborretara bota zuten panpina baten burua, hartu zuen zakur batek kosk eginda beste panpina bati erori zitzaion besoa, hartu zuen hanka bat handik eta beste bat haraxeagotik... eta horratx, pusketak haiekin ezinezkoa zirudiena lortu zuen: panpina bat egin zuen, berria eta bakarra, munduko beste panpina guztien aldean ezberdina.


Baina Frank Einstein ez zen horrekin konformatu: panpina hari bizitza eman nahi zion. Horretarako, bihotz bat behar zuen, baita gau trumoitsu bat ere, bihotza martxan jarriko bazen. Izan ere, gauza jakina da tximista batekin martxan jartzen direla geldirik dauden bihotzak.

Iritsi zen gau trumoitsua, baina Frank Einsteinek ez zuen oraindik bihotzik topatu. Tik-tak, tik-tak, aurrera zihoan denbora bere eskumuturreko erlojuan, eta Frank Einstein urduritzen hasi zen. «Nondik aterako dut orain nik bihotz bat?». Katuari bihotza kentzea ere pasatu zitzaion burutik, baina katuak Frank Einsteinen asmoei igarri eta ihes egin zuen teiltuan gora.

Tik-tak, tik-tak, aurrera zihoan denbora Frank Einsteinen sukaldeko erlojuan, eta bere panpinari jartzeko bihotzik gabe jarraitzen zuen gure asmatzaileak! Hozkailua ireki zuen, desesperatuta: sagar bat, zizare eta guzti, udare ustel bat, laranja bat, anana bat... Fruituak eskuetan erabili zituen, pentsakor. Anana berehala baztertu zuen: handiegia zen, inondik ere. Balioko ote zuen sagar ziztrin hark bihotz bezala bere panpinarentzat? Errege-sagarra zen, bai... Akaso printze bilakatuko zen panpina, errege-sagar hura jarritz gero... Baina Frank ez zegoen seguru. Udarea, berriz,... nahikoa ustelduta zegoen, egia esan. Ez zuen panpina gaixoak horrelako bihotz eskasarekin luze iraungo.

Laranja hartu zuen, azkenik. Laranja ederra zen, zukutsua eta freskoa. Halako gosea zeukan Frank Einsteinek, laranja zuritu eta bertan jan baitzuen. Ederra zegoen, baina laranja azalarekin bakarrik nekez lortuko zuen bihotz bat!

Tik-tak, tik-tak, aurrera zihoan denbora Frank Einsteinen iratzargailuan... Gaztelu inguruko basoa argitzen hasiak ziren lehen tximistak. Frank Einstein iratzargailuari begira geratu zen. Tik-tak, tik-tak egiten zuen iratzargailu gorriak... «Eta panpinari bihotz bezala iratzargailua jarriko banio?», pentsatu zuen. Funtzionatuko ote luke?



HARKAITZ CANO

Frank Einsteinen panpina (zatia)

1 Zein esaldi errepikatzen da behin baino gehiagotan testuan? Azpimarratu.

2 Erantzun.

Zer itxura zuen Frank Einsteinek? Non bizi zen? _____

Zein zen Frank Einsteinen asmakizun bereziena? _____

Zergatik behar zuen gau trumoitsu bat Frank Einsteinek esperimentera egiteko? _____

3 Aukeratu. Zein fruitu zeuden Frank Einsteinen hozkailuan?

- Sagar ustel bat, udare bat, zizare eta guzti, laranja bat eta banana bat.
- Sagar bat, zizare eta guzti, udare ustel bat, laranja bat eta anana bat.
- Marrubi bat, anana bat eta errege-sagar bat.
- Udare bat, sagar bat, anana bat eta mandarina bat.



4 Bete esaldietako hutsuneak lokailu hauekin:

izan ere

beraz

dena dela

berriz

Gaztelua itxeko ordua da; _____, bisitariak irten egin behar dute.

Atzo ekaitza izan zen; gaur, _____, hodei bakar bat ere ez da ikusten zeruan.

Taxi-gidaria ez da isildu bidaia osoan; _____, berritsu hutsa zen.

Hiru adiskide baino ez gara elkartu plazan; _____, oso ondo pasatu dugu.

5 Berridatzi esaldiak, errepikapena saihestuta.

Zuei film onak gustatzen zaizkizue eta guri film onak gustatzen zaizkigu.

Zortzietan esnatu nintzen, jantzi nintzen eta lanera abiatu nintzen.